

Poloniako Gobernua eta Walesa urrunduz doaz

VARSOVIA

Donald Tusk, Liberal Demokratiko Kongresua (KLD) alderdiko Kontseilu Politikoko lehendakaria kanporatua izan zen Poloniako Nazio Komite Hiritarretik, «Zycie Warszawy» egunkariak adierazi zuenez. Aipatu komitetik Tusk kanporatzearen arrazioa, Lech Walesa estatuburuaren aldeko koalizioan KLDk uko egin izatea da. Komitea Walwsaren aldeko erakunde nagusienetarikoa da.

KLD alderdikoa da Jan Krzysztof Bielecki lehen ministroa, hortaz arazo honekin Poloniako Gobernua eta Lehendakariaren aldekoen arteko zatiketa azaldu da. KLDk datorren urriaren 27ko hauteskundeetara hautagai eta diputatu zerrenda librearekin aurkezteko asmoa azaldu du.

Era berean Solidarnosk sindikatutik sortutako indar eta elkarte guztiak Senatutako hautagai berdinak aurkezteko aliantza bat eratzea proposatu zuten. Eskaintza hau Walesaren aldeko taldeek ukatu egin zuten.

Jan Krzysztof Bielecki lehen ministroak, Lech Walesaren aldeko indarretatik aldentu zen lehendakariak izendatu eta laster. Bieleckik, Tadeusz Mazowiecki lehen ministroa izandakoaren Bata-sun Demokratikoa alderdiarekin hauteskundetarako hitzarmenik lortu dezakeela adierazi zuen. KLDko Andrzej Arendarski kidea ere Hiritar Komitetik kanporatu zuten.

Castroren hiru orduko hitzaldiak kapitalismoaren aurka ihardun zuen

Nelson Mandela izan zen ohorezko gonbidatua Matanzaseko urteurrenean

Cubak sozialismoaren munduko azken gordelekua izaten segiko du» adierazi zuen Fidel Castro Cubako lehendakariak herenegun gauean, uztailaren 26an egin ohi duen hitzaldian. Moncada-ko koartelari egin erasoaren XXXVIII urteurrenean, Nelson Mandela lider hegoafrikarra izan zen gonbidatu nagusia eta bertan onartu egin zuen arma kubarrak izan zituela Ck borroka armatuan zebilenean.

K.ALDABE / DONOSTIA

Matanzas hirian bildu ziren haimilaka lagun aurrean, Fidel Castrok bi ordu eta berrogei minutuko hitzaldia eman zuen. Bertan, buruzagi kubarrak kapitalismoaren aurkako betiko jarrera erakutsi zuen, merkatu ekonomia eta inperialismoaren aurka.

EEBBak munduko potentzia militarrik handiena bezala deskribatu zituen, baina ekonomikoki beherrantz doala eta ez daukala Japonia eta Europako Komunitatearen aurka borroka egiterik. «Kapitalismoa, jabetza pribatua, latifundioak, kolonialismo berria, inperialismoa, zarama guzti hori iragana da. Sozialismoa, berriz, bere bizitza laburra kontutan izanik, jaioberria da, gizartearen etorkizuna» adierazi zuen Castrok.

«Ezin dugu jabetza pribatu txikitara itzuli, ez ditugu estatuko enpresak pribatizatuko, hori munduko erokeriarik handiena litzatekeelako». Lehendakari kubarrak gogor salatu zituen Estatu kapitalistak, SESBri



Mandela eta Castro Matanzaseko iraultzaren XXXVIII urteurrenean. AMILTON.

✓ Fidel Castro: «Krisi ekonomikoa handia da. Makinaria erabiltzeko erregairik geratzen ez bazaigu, besterik ez bada azukre kainaberak eskuz moztuko ditugu»

bultzatu nahi diotelako Cuba eta Txinarekin harremanak haustera. Presio horiek «lotsagarritzat» jo zituen Castrok.

Lehendakari kubarrak ez zuen ukatu bere herriko arazo ekonomikoak gorantz doazenean, baina dena den adierazi zuen, besterik ez bada azukre kainaberak eskuz moztuko dituztela, makinaria erabiltzeko erregairik geratzen ez bazaie.

Matanzako iraultzaren urteurrena ospatzera gonbidatu asko joan ziren, besteak beste, Daniel Ortega Nicaraguako lehendakari ohia, SESBko ordezkari bat eta Brasileko Langile Alderdiko beste bat. Baina gonbida-

tu berezia, Nelson Mandela, Afrikako Kongresu Nazionalako (ANC) lehendakaria izan zen. Mandelak Jose Marti domina jaso zuen eta orduerdiko hitzaldi batean Cubari eskerrak eman zizkion Afrikako askapen mugimenduen aldeko erronka egiteagatik.

ANCK borroka armatua egiten zuenean Cubaren laguntza militarra ere jaso zuela onartu zuen Mandelak, eta bera espetxetik irteazko Castrok eginiko lana eskertu zion agintari kubarrari. Mandelak Hego Afrikari eginiko bahitura ekonomikoekin segitzeko eskatu zion munduari eta batez ere EEBBei.

LABURREAN

HONDURASEN 1.500 pertsona hil daitezke koleraz

Honduraseko Osasun Publikoko Ministeritzak 1.500 hildako eta 100.000 kaltetu eragin ditzakeela kolerak ohartarazi zuen herrialdeko babesak gaudituz barnera sartzen bada. «Kolerak arazo larriak sortuko ditu, ezbeharraren ezaugarri guztiekin», adierazi zuen Alirio Cruz koleraren aurkako Komisio Nazionalako burua. Egoera bereziki larria izango da Tegucigalpan, milioi erdi pertsona pilatuta bizi diren tokian.

TXINA: Brenda tifoia 15 heriotz eragin ditu

Gutxienez 15 pertsona hilda eta 22 zaurituta izan ziren Guandong, Txina hegoaldeko probintzian Brenda tifoia igarotzean. Tifoia 340.000 biztanle kaltetu zituen, batez ere Zhunai hirian, eta hamar milioi dolarreko galerak eragin. Komunikabideak eta landutako soroak ere kalterik izan zuten, 100 milioi ingurukoak. Agintariek, tifo gehiago etor daitezkeenez, dei egin dio populazioari neurriak hartu ditzan.

PANAMAKO Parlamentuak Tratatuak betetzea baieztatu du

Olimpo Saez, Kanpo Erlaziotarako Panamako Parlamentuko Komisioko lehendakariak adierazi zuen botere legislatiboa Tratatuaren negoziaketa arazoan Guillermo Enderaren Gobernuaren alde dagoela. Gobernuak 1977n Estatu Batuekin sinatutako Kanaleko Tratatuak berriro ez negoziatzearen alde dago. EEBBek eta Panamako zenbait sektorek Tratatu 1999n amaitu ondoren ere base militarrik jarraitzeko eritzia dute.

NICARAGUA: Ofizial erretiratuek lurra eskatu dituzte

Armada Herriko Sandinistako ofizial erretiratuek protesta ekintzak egin zituzten Lehendakariaren egoitzaren aurrean, lurren jabea eta zerbitzu sozialen ordaina exigitzeko. Honez gainera, Kuwaitera lanera joandako Armadako kide ohien itzulera bultzatzeko eskatu zuten. Violeta Chamorro lehendakariak Armadaren militar kopurua murriztu zuen lurra eta ordaina aginduz.

Judutarrak

Desagertzeaz dagoen hizkuntza

Yiddish

Aste honetan hil den Isaac Bashevis Singer Nobel saridunaren heriotzak bere literaturarengana erakarri du interesa, eta bere istorioak idazteko erabili zuen hizkuntza-rengana, Yiddish-arengana. Askoren iritziz, Yiddisha hil delako seinalea da I.B. Singerren heriotza. Egia, tamalez, ez da urruti izango, oso zaila bait du hizkuntza honek bizitzea gaur egun.

XII mendearen inguruan hasi zen eratzten mintzaira hau, Alemaniako Ashkenazi korronteko juduen artean. Aintzinako aleman garaiazen ondorengo zuzena da Yiddisha, arkaismo ugari gorde dituen hizkuntza germanikoa, baina hebraiera, frantses eta hizkuntza eslaviarren eraginik ere ezagutu du. Alemaniatic, pixkanaka ekialderantz hedatu zen Ashkenazi juduen

emigrazio uhinekin. Yiddish izena berria da esateko, XVII mendean sortu bait zen. Ordurarte Loshn Ashkenaz zeritzon mintzairari, 'ashkenazien hizkuntza'. 1850 inguruan literatura sortu zen Yiddish-ean, Mendele Mokher Sforim-er, eta garai aberats bat ezagutu zuen geroztik hizkuntzak, batez ere Eki Europako herrietan, Alemaniako juduen artean gero eta prestigio txikiagoa bait zuen Yiddishak. Bitartean, EEBBek ere hedatu zen hizkuntza emigrazioarekin.

Baina gainbehera definitiboa nazismoarekin etorri zen. II Mundu Gerra aurretik, 12 milioi Yiddish hiztun zeuden. Holokaustoren ondoren, 5 edo 6 milioi ziren bakarrik. Bizirik geratutakoek ihes egin dute Europa Ekialdetik. Ameriketara, Israelen edo Mendebal Europara kokatu dira. Han oraindik hizkuntza bizi den arren, bigarren be-



Isaac Bashevis Singer.

launaldiek galdu dute, ingeles, hebraiera, aleman edo frantsesaren mesedetan. Gaur, agian lau milioi hiztunek daki oraindik Yiddishez.

Hala ere, Yiddish hiztunek badute oraindik esperantzarik. «Urte askotan, mediku asko hurbildu zaizkio Yiddish gaixoiari. Gero eta oke-

■ Ashkenazi korrontea da judutarraren diasporan zatitu zeneko adar nagusia. Europako juduen talde honen hizkuntza berezia izan da mendeetan zehar Yiddish delakoa.

■ Sefarad juduak, ordea, ipar Afrika eta Ekialde Erdiko herrialdeetakoak dira. Jatorriz 1492n Espainiatik kanporatutako juduen ondorengoak dira. Hauek ere hil zorian dagoen mintzaira berezia dute, Sefardiera, gaztelaniaren dialektoa. Israelen Sefarad eta Ashkenazi komunitateek agintaritzaren erlijioso banandua dute.

rrago zegoela zioten, hil zorian. Baina, harrigarria, mediku guztiak hiltzen ari dira hizkuntza bera baino», komentatu du Pariseko Yiddish liburutegiko zuzendariak, Kiva Vaisbrot-ek. Desagertzen bada ere Vaisbrotek badu itxaropena. «Ez dela hizkuntza bizi? Baliteke, baina ikasketa, memoria eta kultur hizkuntza da».